



EUSKADIKO UDALEN ELKARTEA
ASOCIACIÓN DE MUNICIPIOS VASCOS

EUDELEk uste du Gipuzkoarako planteatutako udal kiroldegien hitzarmen kolektiboa ez dela onargarria

- **Hitzarmenak %20ko igoera dakar udalentsat, zerbitzu beragatik**
- **EUDEL ez dago ados hitzarmen honen aplikazioa instalazio publikoetan emandako zerbitzuetarako bakarrik izatearekin**

Donostia, 2009ko abenduaren 17a. Eudelek uste du kezkarria dela patronala (udal zerbitzu eta ekipamenduen Enpresa Kudeatzaileen Gipuzkoako Elkarte) eta sindikatuak hitzarmen kolektiborako akordioa azkentzen egotea Gipuzkoako udal kiroldegietako langileentzat.

Hitzarmen honetan, ondoren udalengan eragina izango duten igoerak hitzartu dira, eta hori “erabat onartezina eta egungo krisi errealitatetik aldendutakoa” da. Gainera, paradoxikoa da “hitzarmen honek %20ko igoera ekartzea zerbitzu beragatik soilik udalentsat, izan ere, udal kiroldegietan lan egiten duten langileentzat egin da soilik, gehiengoa alde batera utziz, zerbitzuak instalazio pribatuetan eskaintzen dituen kolektibo guzti hori, hain zuzen ere”.

Joan den azaroaren 9an, Eudelek Gipuzkoako Titulartasun Publikoko Kirol Instalazioen Hitzarmen Kolektibo Probintzialaren oso proposamen aurreratua jaso zuen, eta Eudelen Gipuzkoako Lurralde Batzordeak aztertu egin zuen. Batzorde horretan, Patronalari jakinarazpen bat bidaltzea erabaki zen, betiere, Gipuzkoako udalak proposamenaren edukiarekin kezkatuta daudela adierazteko, hala ordainsari igoera handiei dagokienez, nola, egungo koiuntura ekonomikoa dela-eta, hitzarmenaren balizko onarpena guztiz onartezina izango litzatekeelako eta eragina izango lukeelako udalek emandako zerbitzuen kalitatean.